

OLDOZKETAN

(A. *Nervo*)

I

—Ai! intziri neskatok—, larros-arantza batek zauritu nau.

—Larros-arantza ori, anai iltzaille duzu erantzun nion nik.

II

Jainkoarik ez ba'litz ere, giza-semeak, menderen mende, sort-aziko zun, Arengan pentsa ta pentsa.

III

Ba-da, ez dakit nun, bear bada nere baitan, edo goragoko mailla baten, zoragarritzoko zoko bat; ate ezkutu batetik sartzen da bertara... Baiña nik ez daukat aren giltzik!

Ni ara sartu al ba'nintzake, ditudan ezbai ta itzal guztiak zuzitu ta ezer-ez biurtuko litzazkidake, nere kezka ta barne-min guztiak aienatuko lirake; eta bertan aurkituko nukena txit eder, arrigarri ta bete-betekoa izango litzakelako, barneko irrirts eta goranaiak betikoz aseturik, ene ezbai ta zergatien urduri ta ezinegona ere naretu litzake.

...Baiña, ate ortatik ezin ni sartu, aren giltzik ez daukat-eta.

IV

Zergatikan izan bear ote du gizonak, erre-mindua, kemen ez-ezagun baten olatu zakar erdian? Kanpotiko gauzak, geronek nola uste alaxe bakarrik atsekabetzen gaituzten ezkerro, ikus ditzagun aldian dirauten bitartean, eta ikusitakoan... leioa itxi ta piztu dezagun barruko krisaillua.

O.

ikasleak, Markos deunak dionez (MK., XIV, 50-52), Ura utzi ta iges egin zuten. Soin utsean izara bat besterik ez zeraman gaztetxo bat soilki zerraion. Zaiak atzi nai zuten; baiña ark, izara aien esku artean utzirik, iges egin zien larru gorri.

Beti, aitor dutanez, matasatu nau, beste ikasleak Jesus utzi ta iges egin zuten bitartean, Ari jarrai joan zitzaion gazte izkututsu onek... Nor ote dugu? Ebanjelioak ez diosku tautik ere. Maite zuen bat, noski...